

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 14an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko udalerrian ikus-entzunezkoen ekoizpena eta gidioen idazketa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berariazko deialdia. 2019. Urtea

BDNS (Identif.): 465693

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

Lehen. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak, edozein delarik ere haien forma juridikoa, baldin eta honako baldintzak betetzen dituen merkataritza-jarduera burutzen badute:

- a. Helbide soziala eta fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.
- b. Zinema- eta telebista- proiektuak garatzeko laguntzei eta ikus-entzunezkoak egiteko laguntzei dagokienez, pertsona fisiko nahiz juridiko pribatu independenteak izan daitezke onuradun horien ekonomi jardueren gaineko zergaren epigrafea laguntza es-katzen duten jarduerari dagokiona bada.
- c. Gidoi zinematografikoak idazteko laguntzei dagokienez, pertsona fisikoak izan dai-tezke onuradun, jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea badute (EJZn horri dagokion epigrafean daudelarik) eta Jabetza Intelektualaren Erregistroan gutxienez film luze bat erregistratuta badute beren izenean.
- d. Aldundiarekiko betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta izatea, salbu eta ordaintzetik salbuetsita daudela egiaztatzen badute. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzarekin lotutako prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori, hau da, dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean.
- e. Administrazio-bidean edo bide penalean zigortuta eta laguntza publikoak eskuratze-ko aukeratik baztertuta ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren mende egotea ere, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenaren arabera sexu arrazoiengatik diskriminazioz jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.
- f. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkartek, lanbide elkargoak eta abar). Aurreko udal deialdie-tan laguntza jaso zuten proiektuak ere ezingo dira aurkeztu.
- g. Eskatzaile bakoitzak hainbat proiektu aurkezteko aukera gorabehera, pertsona edo enpresa onuradun bakoitzeko eta laguntza-modalitate bakoitzeko proiektu bakarrerako eman ahal izango da laguntza. Elkarrekin bateraezinak dira "zine eta telebistako proiektuak burutzeko laguntzak" eta "zine gidoiak idazteko laguntzak" modalitateak.

Bigarrena. Xedea

Ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta film luzeen gidoiak idazteko la-guntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea norgehiagoka baliatuko da horreta-rako.

Laguntza motak:

1. Zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko laguntzak, deialdiaren oinarri hauetako I. kapituluaren adierazten denaren ildotik.

2. Ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak (deialdiaren oinarrietako II. kapitulua), azpi-modalitate hauetan:

2.1. Zinema-film luzeak fikzioa, animazioa eta sorkuntza-dokumentalak ekoizteko laguntzak (I. atala).

2.2. Film laburrak ekoizteko laguntzak (II. atala).

3. Zinema-gidoiak idazteko laguntzak (deialdiaren oinarrietako III. kapitulua).

Hirugarrena. Oinarriak

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2018ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zk.), eta 2019ko ekainaren 14an, berriz, laguntza horien barruko "Gas-teizko udalerrian ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko eta gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko deialdia. 2019. urtea" ildo.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du. Horietatik, 50.000,00 euro 2019ra luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.471.02 Sorkuntzarekin lotutako in-dustrirentzako enplegu laguntzak partidaren kontura, eta beste 50.000,00 euro 0821.4331.471.29 Ikus-entzunezkoak garatu eta ekoizteko laguntzak partidaren kontura. Honela banatuko dira:

25.000,00 euro zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko.

40.000,00 euro zinema- film luzeak eta sorkuntza-dokumentalak egiteko.

25.000,00 euro film laburrak ekoizteko.

10.000,00 euro film luzeetarako gidoiak idazteko.

Pertsona, enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarra tramitatuko da, eta hau izango da gehieneko dirulaguntza:

9.000,00 euro, zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko modalitatean.

20.000,00 euro, film luzeak eta sorkuntza-dokumentalak ekoizteko modalitatean.

8.750,00 euro film laburrak ekoizteko.

5.000,00 euro 10.000,00 euro handi daiteke, film luzeen gidoiaren modalitatean.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun baliadunekoa da, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren bihara-munetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 17an

*Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI